

Aretxabaleta,  
1992ko apirilak 9

# Aretxagazeta


## Domingueroak Urkulun nagusi

- *Martxoko euriak zifratan.*

- *Atxabaltartua: Bittori Azkoitia.*

- *Udako, lehen erregionalera begira.*

3 zka.



Lerro hauek idatz nitzan eskatu zidatenean Artzarrari buruzko lantxo bat nuen esku artean. Magellan espaziuntzia Artzarraren inguruan bueltaka ari da, planetaren mapa

"Naturarekin harremana galduaz doa. Aldatu eta bide berriak urratu beharra dago".

## Sustraiak sendotu alde

eraikitzeko datuak bidaltzen. Antzerako lana egin zuten Mariner 9ak orain 20 urte direla Martitzetik, baina ezberdintasun batekin: Magellan-ek hiru egunetan informazio gehiago bidaltzen digu Mariner-ek urteetako lan luzean bidali ziguna baino. Zientziak zein azkar aurreratzen duenaren beste adibide bat baino ez da.

Zientzia denez gure gizartearen motore indartsuenetakoa bat bere abiadura hori gure bizitzan ere nabaria egin da. Azkarregi ari gara? Behar bada urrunegi ere bai. Beste planeta

batzuetan sakonki aztertu eta bertan koloniak antolatzearaz hitz egiten dugu. Birtartean gure Lurrarekin, Naturarekin, harremana galduaz goaz. Nere ustez, bide beretik doaz gure aurrerokoenganako begirunea eta lotura ere.

Aldatu eta bide berriak urratu beharra dago, zer esanik ez, baina sustraiak sendotuz, galdu egin beharrean. Horregatik gogora ekarri nahi nuke martxoaren 20az geroztik udaberriaren garaia, eta lau egun geroago hirurogei urte bete zirela Loramendi olerkari atxabaltarra hil zi-

tzaigula. Zer egokiago bukatzeko bere poesiarren zati bat baino:

lorategiko lili txurien aizpa  
ostinak  
laztandu zuten landaretxoa erne  
zedin,  
erne-min beroz eman zizkion  
udaberriak  
orrian ainbat urrin zerien lore-  
pinpin.

...  
barrendu zazu sakon sustraiak,  
sendotu laixter lore-orriak...  
indartu zaitez naikoa!  
entzun nuen, ai! tontor ostean  
ortos zorrotz bat tximist  
tartearen,  
eraso beltzen orroa!...  
esnatu zaitez, esnatu, arren!  
ekaitz gaiztoak eldu baino  
len!...  
esnatu garaiz gaxoa!!

Jesus Arregi.  
Fisikaria

## Aretxagazeta

**Argitaratzailea:** Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta 11noa: 79 01 05. 151 postakutxatila  
**Zuzendaria:** Jokin Antxia, **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Inaxio Garro, Jabier Marcos  
**Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Agurtzane Elkoro, **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Dabid Agirre, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, Jon Antxia, Julen Zuazabeitia, Beinke, Udala. **Inprimategia:** Gertu Koop E. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da.

# Zer daukazu esateko?



**Maialen Garcia**  
(ikaslea)

Aretxabaletan ez dago lekurik guk jolasteko: parkeak, ludotekak, kulunpioak eta abar. Nik jarteko eskatuko nuke. Orain kalean aspertuta egoten gara.



**Espe Urrutia**  
(langilea)

Enteratu naiz, Malkorreko etxeetarako jendea apuntatu dela eta dirua ipintzen dabilela. Nik jakin gura nuke, hau egia ala gezurra den.



**Juan Iruzubieta**  
(langilea)

Kintoen etxafleruak. Ez dakit eurak izan ziren, baina apur bat pasatu egin ziren. Etxafleruak gora bora beharrean, kalerantz bota zituzten. Errespetu apur bat eskatzen dut alde horretatik.



**Josu Urkia**  
(langilea)

Herriko jendea beti kejatzen da herrian aktibitatekerik ez dagoela, eta badaude. Daudenak gutxi izan arren, jendeak izugarriko pasibiditatea dauka aktibitate horrietan parte hartzeko.

## KARTAK

### Ez solidario, ez gizatien jarrerak

Persona batzuk EZ-GIZATIAR jarrera agerzen dute taldearen helburuak beraien interes propioen menpe jartzen dituztenean. Lerro hauek honelako ekintzak salatu eta bide batez erreflexio gune izan gura dute.

Larunbatean, Martxoak 21, Almen azpian, Ederlan parean aurkitzen den negutegia (inberraderoan) apurtzeko gai izan zen norbait.

Arazoa, beraz garbia izanik ere, kasu honetan areagotua gertatzen da, guraso, irakasle, laguntzaile eta batez ere ikasle askoren elkarlanaren fruitua baita negutegia.

Beraien asti libretik makina bat ordu emandiotan honi.

Batasun ahalegin hau zanpatzeko eskubiderik ez dagoela iruditzen zait, are gutxiago ikatolako proiektuen

programa bultzatuz, OHOKo ikasleei ikasketak era praktikoko-aktibitatez osatzera zuzendua dagoenean.

Bestalde, ERRESPETU, SOLIDARITATE, ARDURA eta KONPROMEZU baloretan jarrerak lantzeko dugun kezka eta bide honetan egiten dugun ahaleginari ez diete baxterik onik agiten honelako gertakariak.

Lehenengo aldia ez dala kontutan izanik,

EKINTZA EZ SOLIDARIO, EZ GIZATIAR hauek salatzeko erabili gura dut oharra, aurreratzean horrelakorik gertatuko ez zaigulako esperantzaz.

*Almen ikastola*

Orrialde honetan kartak argitaratu gura badituzue, zuzendu gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara. Animatu zaitetzte.



## Martxo eta apirileko euriteak

Aurtengo neguan euri handirik eginez badu ere, martxoa eta apirila bitartean zaparrada eta elurte ugari izan genituen.

Otsaila hilabete lehorra izan genuen arren, martxoa eta apirilaren bitartean gure errekek eta Urkulu urrez bete ziren.

Martxoak 25etik apirilaren 6ra Urkuluk 1,63 metro igo zituen eta bere bolumenak % 10,4 igo zuen. Diputazioak jasotako datuen arabera, Urkulun jasotako litroak egunero hauek izan ziren:

martxoan 25ean 7,2 litro; 26an 42,9 litro; 27an 24,2 litro; 28an 2,8 litro; 29an 2,4 litro; 30ean 12,6 litro; 31an 8,2 litro. Apirilaren 1ean 1,5 litro; 2an 2,0 litro; 3an 4,4 litro; 4an 9,8 litro; 5ean 0,0 litro eta 6an 7,9 litro. Guztira egun hauetan jasotako litro kopurua 186 litrotakoa izan zen.

Euriteak hasi aurretik urtegiko ura 329,45 metrotan zegoen eta aste honetan 331,08 metrotan zegoen. Beraz, metro bi eskas gainezka egiteko.

## Komertzioak euskalduntzeko kanpaina

Udalak eta Beinek antolatuta eta bultzatuta laster kanpaina inportante bati hasiera eman go zaio, gure herriko komertzioak epe luzera begira euskalduntzeko asmoz.

Gure eguneroko bizitzan dendak eta tabernak garrantzia handia daukate; baina euskarak ez dauka indar handirik komertzioen munduan. Hori dela eta, kanpaina horren helburua denda eta tabernetan euskararen presentzia indartzea izango litzateke.

Hori denon egia bihurtu dadin, udalaren euskera teknikaria eta Beinkerekin batera, herriko komertzioetako arduradunen elkarlana beharrezkoa da. Euskerak denon beharra daukanez, komertzioak euskalduntzea aurrera pausu inportantea litzateke euskararentzat eta baita herritar guztiarentzat ere.

## Igeri ikastaroak

Aretxabaletako Udala Kultura Batzordeak antolatuta igeri ikastaro emango da gure herriko Kiroletxean. Ikastaroa maiatzaren 4ean hasi eta maiatzaren 29an bukatuko da.

Igeri egiten ikasi gura duenak hiru ordutegi izango ditu aukeran. 5etik 6ak arte, 6:15etik 7:15ak arte eta 7:30etik 8:30ak arte. Beraz, ikastaroa arratsaldez bakarrik emango da.

Apuntatu gura duenak jo dezala Kiroletxera edo bestela deitu dezala telefono honetara: 796461. Izen emateko epea apirilaren 6an zabaldu zen. Ikastaroak plaza mugatuak izango dituzenez, interesatuok azkar ibili zaitezte.

Ikastaroak prezio bi izango ditu: bazkideendako 4.000 pezeta eta bazkideak ez direnendako 5.900 pezeta.

Aukera polita izan daiteke, igeri egiten ez dakitenek ikasi dezaten.

**GARBITZEN**  
BUSTI ETA LEHOR  
GARBIKETA

Loramendi, 6  
Tfnoa: 79 53 61

**BENGOA**  
Mertzzeria

Durana, 13  
Tfnoa: 792100

ARETXABALETA

**IMANOL ALTUBE**

**ELEKTRA**  
INSTALAKUNTZAK

Durana, 36  
Tfnoa: 79 10 60

ARETXABALETA

**TXIKIA**



Santa Kurtz, 13  
ARETXABALETA



## Odol emaleak


Odol Bankukoak izan ditugu herrian. Bost hilabeteetik behin etorten dira eta herriko osasun zentruak ere laguntzen die euren lanetan. Odol emaleen kolaboratzaile lanak herrian Feliciano Martinezek egiten ditu.

Aretxabaletako odol emaleak eskatuta, 1988an hasi ziren gure herrira etorten, egun hartan 51 lagun joan ziren odola ematera. Azkenengo bisitan honako datu hauek jaso ziren: 109 odol emale joan ziren guztira. Horietatik 25 berriak izan ziren eta beste 25ek ezin izan zuen odolik eman, ez zituztelako baldintzak beteten. Herrian zentsatutako odol emaleak 254 dira guztira.

Odola ematen duen bakoitzari Hepatitis, HIES eta gaisotasun kutsakorren kontrola egiten zaio. Mesede bat egiteaz gain, zure odola kontrolatzeko aukera ematen du donazioak.

## Aste Santuko ospakizunak

Aste Santurako parrokiak elizkizun bereziak antolatu ditu. Ostegunean, Jaunaren Afariko Meza (5.30tan parrokiari eta 6.30tan monastegian), Meza Nagusia (7.30etan parrokiari) eta Hitzaren Liturgia (9.30etan monastegian). Ostiralean, Laudes (goizeko 9etan Monastegian), Gurutz Bidea (10etan parrokiari), Penitentzi Ospakizuna (11etan parrokiari), Jaunaren Nekaldiko Ospakizuna (4etan monastegian eta 5etan parrokiari) eta Gurutz Bidea (7.30etan parrokiari). Larunbatean, Aitortzak (5etan parrokiari), Pazko Gaubeila (9etan parrokiari eta 11etan monastegian). Auzoetan ere, meza bereziak izango dira. Egunean eta eguakotxean Galartzan 5etan, eta Azartzan 7etan. Zapatuan Azartzan 8etan gau meza.



## Aurreko mendean jaiotako bi joan zaizkigu

Azken egun hauetan gure herriko pertsona zaharrenetariok hil dira. Martxoak 26an Filomena Lorente hil zen 95 urterekin. Apirilak 2an berriz, Arkarazoko Jeronimuen baserrian, Paula Urrejola hil zen 92 urterekin.

Bi heriotza hauekin, Atxabaltan, aurreko mendean jaiotako 3 pertsona geratzen dira: Pertsona zaharrena, Josefa Zubizarreta Zuazua da, 1894ko Abenduaren 7an jaiotzen, beraz aurten 98 urte egingo ditu.

Josefinarekin batera, 1900 urtea baino lehenago jaiotako Eduardo Gomez Garcia 1898ko Urriari jaiotako eta Ines Horrillo Hurtado 1898ko urtarrilean jaiotako geratzen dira.

Aretxagazeta Elkarteak, orri honen bitartez doluminak bidaltzen dizkie Filomena eta Paularen familiei.

- Atzeratuen aldeko batzordea berriztu egin da. Lehendakaria hemendik aurrera Adolfo etxebarria izango da eta lehendakari ordeoa L.M. Anejolabeitia.

- Aurten ekinda San Migel auzunearen Saneamendu eta hornikuntza Egitamua berezi bat burutuko da. Lehen Loramendin egin zen eta aurten edo bi urtetara San Migelen egingo da. Guztira 55 milioi pezeta gastatuko ditu Udalak auzo honetan. Beste auzoek ere laster izango dituzte antzerako planak.

**IRIARTE**

Umeen denda



DURANA, 8

Tfnoa: 79 10 96

**ZARE**

ARTEGINTZA

Lezama merkatal zentrua, 14

**PAGALDAY**

OPARIAK ETA LURRINDEGIA

Durana, 33  
ARETXABAETA



## Erreforma eskolarrari buruzko hitzaldia

Apirilaren 7an Udal Eskolaurrean Txaro Iraeta Hezibide Elkarteko arduradun Pedagogikoak erreforma eskolarrari buruzko hitzaldia eman zuen. Txaro Iraetak erreformaren zergatiak azaldu zituen. Bere uste-tan LOGSEren aldaketa horiek gizartearen beha-

rrei erantzuten die. Gizartearen eskakizunak kontutan hartuta eraiki behar da etorkizuneko eskola, erreforma gai horren inguruan oinarritzen da.

Eskolaren azken helburuak ez luke gauza asko ikastea izan behar, ikasten ikastea baino.


## "Bai independentziari" plataforma sortu da

Herrian "Bai independentziari" deituko plataforma sortzeko asmoa hartu du talde batek.

Talde honek, independentziaren gainean, atxabaltar guztion arteko eztabaida piztu gura du.

Eratu gura den talde honek zabalda izan gura du, bestelako desberdintasun politikoak kontutan hartu barik.

Hori denori dela eta, "Bai independentziari"



deituko plataformak apirilaren 10 eta 11rako diapositiba emanaldi bat emango du.

Asteburuko bi ekitaldi horietan elkartzeko den jendearen artean eztabaidatuko da aurrera begira gai horren inguruan zer egin daitekeen.

## UDALETIK

### Aurrekontuak Bidezuloak

Aurrekontuak ba-doaaz poliki-poliki. Diru sarrerak jakinda gero, inbertsio saila eztabaidatzen ari dira Udal Gobernua osatzen duten alderdi politikoak (EA-HB-PSOE), sail hori delako garrantzitsuena eta azken finean diru gehien dardoana. Apirilako Udal Plenoan onartzeko moduan izango dira.

### Larrinbe "industrialdea"?

Aurreko ARETXAGAZETAn irakurri genuen izenburua ez da zuzena. Aretxabaletan Industrialdeztat hartu daitekeen gune bakarra, Erakunde Publikoak bultzatutako Industrialdea da. Beste hau guztiz pribatua da.

Entzun izan dira kexa batzu bertako urbanizazioari buruz. Argi eta garbi geratu dadila! Hesi-tik barrura leku pribatu bat da, eta bere garaian aurkeztutako proiektuan eurek egin beharko luketen urbanizazioa agertu eta horrela onartu zela, beraz Udalak ez du inolako erantzunkikeen.

Azken euriaren ondorioz herriko kaleak zuloz jantzi dira. Jendearen kezka lasaitzeko asmoz Udaletik esan beharra dago konpontzeko agindua emanda dagoela, baina kontuta hartu eguraldiak lagundu behar duela.

Industrialdearen inguruan oso txarto dago, badakigu, baina gauzak argitu egin behar dira: Industrialdeko ingurua, ARINSA (Aretxabaletako Industrialdea S.A.) enpresaren esku dago, berak egin behar du urbanizazio osoa, eta egokituta gero Udalari itzuli.

Industrialdearen jarraipena egingo balitz, dena batera egingo litzatekeela jakin du Udalak; gehikuntza hori egingo ez balitz, dagoena konpondu, txukundu eta Udalari itzuli behako lioke ARINSAk.

### Aozaratzakoa ura

Hasteko dauden Ur-Hornikuntza lanak, Aozaratzan hasiko dira. Gaur egun Sargarai baserri ingururaino dagoen ur tuberia Aozaratzan osora luzatuko da. Lan honetan 2 milioi pztza gastatuko dira.



## Beinke, euskararen lanean

Orain dela bost bat urte sortu zen BEINKE, euskara eta euskal kultura indartzeko asmoaz. Euskarak aurrera egin dezan, argi dago inportanteak eta beharrezkoak direla herritarren eguneroko lana eta gizarte kontzientziaioa. Asmo horrekin sortu zen Beinke euskaraz eta euskararen alde lan egiteko, jendea elkartzeko, behar-

rezko neurriak eskatu eta presio egiteko...

### Lehentasunak

Baina euskararen arazoa oso zabala denez, aurtengo programazioan BEINKEk lehentasun batzuk markatu ditu puntu horietan zentretako eta Elkarateak egiten duen lana eragingarriagoa izan dadin.

### Gazteak

Etorkizuna gazteen eskuetan ei dago, hori dela eta BEINKEren lehentasunetako bat gazteria izango da. Gure herriko gazte gehienek euskaraz dakiten arren, erabilera ez da hain altua. Euskara normalizatu dadin gazteek euskaraz normal berba egin behar dute, horretarako

inportantea da herrian gazteei eskaintzen zaizkien aktibitateak euskaraz izatea. Hori lortzeko, herriko elkarteen inplikazioa bultzatuko dugu.

### Komertzioak

BEINKEren beste lehentasunetariko bat komertzioak izango dira. Eguneroko bizitzan komertzioek daukaten eragina handia denez, luzera begira eta Udalarekin elkarlanean komertzioak euskalduntzeko kanpainari ekingo zaio.

### Aurrera begira

Martxoko urteroko Batzar Orokorrean BEINKEren Zuzendaritza Batzordea barritu egin zen jende barriarekin.

Hala ere, BEINKEk arazoak ere baditu. Batetik Euskal Txokoa indartu beharra euskaltzale eta euskal kulturaren dinamizatzaille bihurtu dadin. Eta bestetik, herriko euskaltzaleak elkartzea, denon artean eraginkorragoak izango garelako.

VALDEZATE  
TABERNA

ZURE ZERBITZUAN


Bizkaia 5

ARETXABAETA

LASA AGUILERA  
AHOLKULARITZA

Andra Mari Auzunea  
Tfnoa: 72 29 26

ARETXABAETA



LENIZ

LIBURUDENDA

HERRIKO  
PLAZA

TFNOA:  
791616

ARETXABAETA  
ITURGINTZA

Durana, 16  
Tfnoa: 79 17 53  
ARETXABAETA

Kanpoko gure lagunei harro harro erakusteko leku bat badaukagu Aretxabaletan: Urkulu. Baina leku ederrak jendea ekarten du. Eta jendeak, arazoa. Eguraldi onak datozen eran hasi dira kotxe iladak. Zer pasetan da Urkulun? Ikuspegi desberdinak biltzen saiatu gara, gero geurea eukitzeko.

Ordubete pasako ataskaioa izan zen San Jose zubiko asteburuan Urkulun. Kotxeak ez aurrera eta ez



## Urkuluren erabilera, neurri kontua

atzera. Hori egun berezia izan zen, baina hemendik aurrera ere badago arriskua. Kotxe iladak, mahaiak, zikinkeria, urkulura etorteko eskubidea... ikuspegi desberdinetik ikusten ditu bakoitzak. Baserritarrekin, udalarekin, eta ibiltariekin egon gara gu, besteren batzuren iritzia ere interesgarria izan arren.

### Neurritz pasatu

Inguru honetako baserritar bati hitz batzuk kendu dizkiogu arazo honez. "Hasieran jendea footing egitera etorten zen,

eta ez zuten trabarik egingen. Orain, arazoa da zapatu-domeketan jende pilo etorten dela". Euren eguneroko bizitzarako traba apur bat izaten dute asteburuetan. Baserriko lanerako ere bai. Egun batzutan lan batzuk gerorako utzi behar. "Behin, kasu berezi moduan, zelaira sartu ginen burdiarekin barrera batetik, eta burdia bedarrez kargatu bitarte kotxe bat utzi zuten pasetan, txoferra ageri ez, eta zelaitik ezin urten". Irtenbideaz galdetu diogunean esan digu bere ustez gura beste aparkaleku badagoela. "Seinaleak jarri

behar dira non aparkatu erakusteko. Udaltzainak egon zirenean ondo funtzionatu zuen, baina seinalerik ez zuten jarri". Edozein modutan ere, ez dago jendea etortearen kontra: "Berez jendea ez da kaltegarria, baina neurriz pasetan denean, orduan bai".

### Errespetu kontua

Beste bizilagun bat bere roago agertu zaigu: "Errespetu falta haundia dago. Inoiz zeozer esan eta burla egitea ere pasatu zaigu. Trafiko problema bat dago batetik. Bestetik zikinkeria, harriak zelaira botatzea eta jabego pribatua ez errespetatzea. Edozein zelaitan sartzen dira jatera". Bertako honen iritziz, normalean ez da Atxabaltako jendea izaten, eta euskaldun gutxi.

Udazkena eta udaberria izaten da txarrena, udan jendea plaiara joaten da eta. Egun txarrenetan udaltzainen edo ertzainen beharra ikusten du bizilagun honek. "Gertatu izan zait, kotxea etxetik ezin nuelako atara bati atentziora deitu eta erantzutea: aqúi no hay señales". Aparkalekuak markatzea eta errespetatzen ez ditzutenei isunak (multak) jartea beharrezko ikusten du. Beste proposamen bat ere badu: Egun inportanteetan, Aretxabaletatik autobusa jarri eta kotxei pasetan ez uztea.

**"Jendea berez ez da kaltegarria. Baina neurritik pasetan denean, bai".**



Arazo ugari ikusten ditu Urkuluko bizilagun honek: "Iturriak ez dago, eta batzutan etxera etortzen zaizkigu ur eske. Ustedut iturriak jarri litezkeela Zuatzu azpian eta abar. Banku guztiak apurtuta daude. Zikin asko dago eta ez da garbiketan. Diputazioetik urrin bizi gara eta igarten da".

## Landa bezala ez

Urkulun ibilaldia egiten dabilen jendeak gauzak ez ditu bardin ikusten. Horietako batzuri grabagailua aurrean jarri diegu. "Normala da gero eta jende gehiago etortea, Urkulu oso ondo dago eta. Kontua da etorten zarenean gauzak zeuden bezala utzi behar direla". Kotxeen kontua ez dute garbi ikusten. "Hor udaltzainak jarri beharko lirateke. Denok buru apur bat eukiko bagenu ez litzateke beharko

horrelakorik. Egia esan, denok ezin gara oinez etorri, kotxea behar da. Gainera Arrasatekoek ere etorteko eskubidea daukate, Urkulu ez da atxabaltarrena bakarrik".

Bildur bat agertu du beste paseante batek: "Bildurra ematen dit Urkulu Landa bezala geratzeak. Ondo dago jendeak bueltatxo bat ematea, baina egun osorako etortea, mahaiarekin, bazkariarekin, eta guzti horrekin, ez. Dena botata uzten dute Landan, eta ez nuke gura hori Urkulun pasatzea. Edozein modutan ere ez dut uste gertatuko denik, euskaldunak ez dira horrelakoak, ez daukagu horrelako ohiturak".

Ibiltariak bota digun azken oharra ipinteko modukoa da: "Informazio gehiago gustora eukiko nuke, Urkulu inguruan natura aldetik zer dagoen jakiteko".



**"Normala da gero eta jende gehiago etortea. Urkulu polita da".**

Edozein ikuspuntutatik begiratuta ere, kotxeen arazoa argia da, eta hori konpontzeko arauak daudela eta egongo direla. Hala ere, arautu ezin dena zera da: Urkulu erabiltzerakoan jarri behar den errespetoa eta zentzua. Atxabaltarrok hasita..

## Plan Berezi batek arautuko du Urkulu

Udaleko Elizateen zinegotziarekin egon gara, gai honetaz berba egiteko. Arau subsidiarioen berrikusketan, Urkulu ingurua erregulatuko duen Plan Berezi bat egingo da. Hona plan horretarako udaleko arduradun honek azaldu dizkigun ikuspuntuak: Kotxeen kopurua mugatu egingo da. Aparkalekuak markatu eta mugatu egingo dira. "Zuk ezin diozu inori debekatu Urkulura joatea, baina jendeak ikusten duenean aparkalekua bete dela eta ezin duela aparkatu, oinez joango da edo beste nonbaitera aldegin", diosku.

Beste aldetik mendiaren ordenazioa ere egingo da. Horretorriko litzateke bertako zuhaitzak bultzatzea, arautegi

forestalaren bidez. "Horrek dakar bertako jabeak diru aldetik kaltetzea, pinuak diru gehiago ematen duelako. Hori kompensatu egin beharko da nire ustez, Diputazioak edo Mankomunitateak, onuradunak denok garelako". Azkenik eraikuntza aldetik eta lurren erabilera arautu egin behar da. "Plan Berezi hau onartu arte, behin behineko neurriak hartu ditugu. Igaz uste genuen, udaltzainek erakutsita jendeak ikasiko zuela. Txoferrak ez dira umeak. Baina ikusi dugu jendeak ez duela horrela jokatu, gura duena egiten du udaltzainik ez badago. Eta aurten ere bi udaltzain jarriko ditugu".

# Bittori Azkoitia

## Oñatitik Atxabaltara

- **Edadea:**
- 63 urte.
- **Non jaio zinen:**
- Araotzen (Oñatin).

Marinako Azpiko base-  
rrian. Baina gero Oñatira  
jaitsi ginen bizitzera.

- **Noiz etorri zinen Atxabaltara?**

- Orain dela 36 urte etorri nintzen.

- **Norekin etorri zinen?**

- Ezkondu eta gizonarekin etorri nintzen.

- **Zergatik etorri zinen?**

- Gizonak zerrategia zeukan Eskoriatzan eta han egiten zuen lan. Orduan orain beste etxe ez ziren egiten eta ezkondu aurreko urtean egin zuten etxe hau, eta bertara etorri ginen. 36 urte da-roagu etxe honetan.

Etorri ginenean inguruan etxe hau, Hilarioren Zerrakoa eta San Martingo base-  
rria bakarrik zeuden, eta gero San Martingo so-  
loak eta ortuak, besterik ez.

Etxe honi "la casa verde" deketan zioten bentana berdeak zeuzkalako. Hasieran 3 pisu zeukan eta orain dela 20 bat urte altxatu



egin zuten beste pisu bat egiteko.

- **Zure lehenengo inpresioa?**

- Lehenengo inpresioa... erdalduna topatu nuen Atxabalta. Oñatiren aldean asko be erdaldunagoa, kanpoko jendea asko zegoen hemen.

Sasoi hartan, Oñati beste estilo bateko herria zen. Hona etorri nintzenezan herritik auzora moduko diferentzia topatu nuen, Atxabaltatik

Koruetara joango bazina moduan. Baina hemengo jendea Oñatikoa baino zabalagoa zen. Oñatin aberats asko zegoen, aberatsak aberatsekin eta pobreak pobreekin ibiltzen ziren. Atxabaltako jendea berdunagoa zen.

- **Ze alde dago orduko Atxabalta eta oraingoaren artean?**

- Lehen, bazkalostean bezindadeko andra guztiok San Martingo arbolapean elkartzen ginen

puntua egiten eta barruketan. Eta domeketan, androk elkartu eta 7,30etako mezatara denok batera joaten ginen eta goruntza gentozela errekauek egiten genituen, domeketan dendak zabalik egoten ziren eta. Orain bakoitzak atea zerrau eta ez dut inor ere ikusten. Orduan hori imajinatu be ez egitekoa zen.

- **Herriminik?**

- Bai, nik Atxabaltan urte asko daroat, baina Oñatikoa jarraiketean dut izaten. Ni oso Oñatikoa naiz.

- **Anekdotarik?**

- Etorri nintzenezan nik ez nuen inor ezauketan eta ni be ez ninduten ezauketan. Udazkenean etorri ginen eta klaro, kurtsoak orduantxe hasita.

Aspertuta nengoen, eta herria ikusi edo egin behar nuela eta, banoa bakar-bakarrik. Kalerik kale banoa eta, itxuria orduan kanpoko jendea erdalduna zen eta erdaldun antza hartu zidaten.

Eliza inguruan andra kuadrilatxo bat zegoen, ikusi ninduten eta pentsaurik erdalduna nintzela edo, nire ondoondoan hasi ziren " *ene! hori maistraren bat izango da*". Euren mormosetan bazebiltzan eta oso senzilak ikusi nituen eta ni neure artean zergatik isildu behar dut, esan egin behar diet...Eta esan egin nien. "*Zu, ez naiz maistra*".



## UDAKO, igoteko esperantzan

UDAKo talde guztiak orain arte nahiko maila ona erakusten badabiltza ere, batez ere, talde bat dabil destaketan, bigarren errejionaleko taldea. Ekipo honek igoera fasea jokaketako klasifikazioa lortu du.

Bigarren errejionaleko taldea igaz hasi zen martxan, gazte mailatik urtetan zuten jokalariek jokaketako aukera euki zezaten. Iga-zko helburua mailara egokitzea bazen, aurtengo

tenporadan igotea zen euren asmoa. Denboraldia ez zuten oso ondo hasi, baina tenporadaren bigarren zati bikaina eginda gero (partidurik galdu bari-rik), nahiko samur lortu dute bigarren postua, gainera oso sasoi onean hasiko dira bigarren fasearekin.

Igoera fase horretan 21 urtetik beherako talde bakarra izango da. Hori ikusita, esperantza euki behar dugu gure herriko

jokalaria gazteekin, eta Pre-ferenteko talderako ere etorkizun ederra.

Igaz kiroltasunaren sarria jaso zuen bigarren errejionaleko taldeak eta aurtan lehen errejionalera igotea lortu dezake. Baina horretarako ez legoke txarto herritarron laguntza, partiduetara joan eta taldea animetako.

Ea suertea daukaten jokatu behar dituzten hurrengo partiduetan eta igotea lortzen duten,

Alberto Roldanek, martxoaren 29an, XVII Uzarragako igoera irabazi zuen. 147 txirrindularik hartu zuten parte, jubenil kategorian honetan. Alberto oraindik jubenil kategorian lehenengo urtekoa izan arren, beste guztiei aurrea hartu eta garaipen polita lortu zuen.

U.D.Ako mutilak Domekan Eskoriazta K.E. taldearen aurka 1 eta 0ko garaipena lortu zuten. Derbi eskaxa izan zen, baina azkenean garaipena etxean geratu zen. Ea hurrengoa ere irabazten duten.



AZKENENGO  
BERRIKUNTZAK

Loramendi, 10  
Tfnoa: 79 81 78

IMANOL ARRAZOLA

KLINIKA DENTALA

Otalora, 18 - 1.º D  
Tfnoa: 79 93 55



Sport  
**SASIAIN**

Zaraia, 4  
Tfnoa: 79 77 63

Aretxabaleta



Ibarrako Bainuetxearen fama handia zela eta, gure herria uda pasetako leku aproposa bihurtu zen. Honaino zetozen beraneanteek, uratsbainuak hartzeaz gain, barriketan eta paseetan

ematen zituzten sasoi hartan luxuzkoak ziren oporraldiak. Barriketazaleak "Portasol"-en elkartzen ziren, argazkian nahiko txarto ikusten den "Baños Viejos de Arechavaleta" zioen

letrero horren ondoan zegoen harmailan; beste batzuek, "Ollerixa" ostatuan bazkalduta gero, Atxabaltako inguruak ezauketan urtengo ei zuten modan zegoen "karrikotxe" horretan.

Edozein kasutan, garbi dago sasoi hartako beraneanteek oporraldiak eta astia lasaitasun handiz hartzen zituztela, gure historian zehar denboraren erlojuak gaur baino erritmo lasaigoa izan duela erakutsiaz. Horren lekuko, hemen daukagun "Abiadura Handiko Karrikotxea" (AHK).

Hala ere, Bainu Etxetako moda ez da hain kontuzaharra, gaur egun oso modan daude osasunerako oso onak ei direlako eta baita errelajetako ere. Pena da Atxabaltako bainuetxe ederra galdu izana.

## ERRETRATOAREKIN JOLASEAN

• Erantzun guztiek ARETXAGAZETAREN bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datorren asteko eguakotxa baino lehen.

• Asmetan dutenen artean Everest espedizioko jertse bat zozketatuko da.

Hona hemen aste honetako galdera:

**Non dago argazkian agertzen den harrizko eskultura?**

Pista: Eliza batetik gertu dago.

(Aurreko zenbakiko erantzuna: Areantzako San Bixente ermita).



**Aurreko lehiaketaren irabazlea EIDER OTXOA izan da. Zorionak!**

Erantzuna: .....

• Izen-abizenak: .....

• Helbidea: .....

• Tfnoa: .....

AMANTALAZ



Oraingoan sukaldaria: Pagaldaiko Lutxi.

Tripakiak

Lau lagunentzako osagaiak:

- kilo bat tripaki
- kipula bat
- berakatz ale bi
- piper hautsa
- belaunetako hazurrak
- pipermina
- uzdaiazpikoa
- txorizoa

Zelan egin:

Tripakiak egosi, bi orduz edo, hazurrekin batera. Lapiko batean olio aipini, kipula eta berakatz aleekin, dena txiki-txiki eginda.

Apur bat doretan direnean piper hautsa bota eta dena nahastu. Gero tripakiak, urdaiazpiko eta txorizo zatiak bota behar zaizkio, eta ordubetean egon behar du su txikian.

TXISTEAK

Geroago eta okerrago

Kaietano be urteetan aurrera zihoan. Batek jakin zuenean hinurogeitamar urte zituela, esan ei zion. " Ez dituzu eraten". Eta bere erantzuna: "Ez ba, ezin eman; eman ahal banituzke, ez nituzke eukiko".

Kalean poliki-poliki zihoala, ezagun batek:

- Gogor gabiltza Kaietano, gogor?
- Bai geroago eta gogorrago. Gogorraren gogorrez makurtzeko be gauza ez naizela.

BAZKIDE FITXA

IZENA: .....

HELBIDEA: .....

KONTU KORRONTEAREN ZENBAKIA: .....

KUTXA: .....

TELEFONOA: .....

Aretxagazetako bazkide izan gura baduzu, bialdu gure bulegoetara edo 150 postakutxatilara. Kanpotarrei korreoz bialduko zaie.

KOMIKIA

AURA ASPALDIKO  
BIZI AL HAIZE...  
LEHENGO EGUNEAN  
IZAN NIAN AIRETSA...  
OHETIK IRTEN ETA  
75 URTEAKO AGUREA  
BIHURTUTA...

NICKY ETA PAUL -



BERRIZ ERE, HIRE EGUNA DELA TA  
BURUARI BVELTAKA... LASAITU ETA  
BIZI HADI, TOTAL EGUN BI BESTERIV  
EZ DITUK !!!



## 11

### ZAPATUA

- Zinea: " Gritos de Piedra" filmea, gaueko 10etan.

laitzera, igoera Kanpazaretik.


- Zikloturisten irteera: Aretxabaleta - Kanpazar - Elorrio - Berriz - Trabakua - Ermua - Aretxabaleta. (66Km).

## 12

### DOMEKA

- Zarai mendi taldearen irteera: Jarindo. Irteerara etortzen direnak, idazlan lehiaketan baten parte hartu ahalko dute.

- Goizeko 9retan Murrukixo mendizale elkartearen irteera: Uda-



- Zinea: "Los Chicos del Barrio Colombia" arratsaldeko 4,30etan eta "Gritos de piedra" 7etan.

## 16

### EGUENA

- Apirilak 16tik 20rarte Zaraia mandi taldearen irteera: Beitz Labaien.

## 17

### EGUAKOTXA

- Zinea: "Los rescadores de Cangurolandia" arratsaldeko 4,30etan eta "Bajo la Aurora Boreal" arratsaldeko 7retan Zaraia zine-man

## 18

### ZAPATUA

- Zinea: " Cita con Venus" gaueko 10etan.

## 19

### DOMEKA

- Apirilak 19tik 22rarte Murrukixoren irteera: Pirineosetara.

- Zikloturisten irteera: Aretxabaleta-Arlaban-Legutiano-Zubizabal-Otxandio-Urkiola (77Km)

- Zinea: 4,30etan eta 7etan "El Robobo de la joya" filmea.

## ARETXAZOKA

### Etxebizitzak

- Lau gelako etxebizitza behar da alokairuan. Tfnoa: 79 33 59

- Langile batzuk etxebizitza bila gabiltza Aretxabalean. Tfnoa: 77 04 58

- Etxebizitza behar dut alokairuan. Tfnoa: 79 51 21

### Lana

- Atxabaltan neska bat behar da umeak zaintzeko. Tfnoa: 790476

- Atxabaltan andra euskalduna gertu umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 07 75.

### Salerosketak

- Eski alpino egiteko bota pare bat salgai. 43a eta berri-berriak. Tfnoa: 76 38 72.

- Amstrad CPC 464entzako jokuak eta programak aldatuko nituzke. Interesatuak dei egin 79 42 95 tfnoa.

Orrialde honetako iragarkiak ( lana, etxebizitza, salerosketak eta abar) debalde idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.

# PUBLIZITATEA





**GARAGE**  
**OSKAR**  
Basabe poligonoa  
A - 2 - 4  
Tfnoa: 79 98 74

**ZARIAIA TABERNA**  
GOIZEKO 5,30etatik  
ZURE SERBITZUAN  
  
MANTEKA  
ANAIK

**BASABE**  
**JATETXEA**  
Menu eta afariak  
Industrialdea  
**ARETXABALETA**  
Tfnoa: 79 31 84

**GARAGE**  
" EDER "

---

Karrozeria  
mekanikoa

---

IBARRA S/N  
Tfnoa: 791666  
**ARETXABALETA**

**M**obiliario  
**A**RENZA  
BIZKAIA, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA

ALTZARIAK  
DISENUA  
APAINKETA



**EROSKI**  
Aretxabaletan zure erosketak egiteko Eroski.  
DURANA ETA ARALAR KALEAN  
Tfno: 79 16 05



**ARRIZABALAGA**  
**AROSZTEGIA**  
Sukaldeko altzairu eta armairu enprotatuak  
Tfnoa: 79 49 73 ARETXABALETA

**NERIAN**  
Loradenda  
Otalora, 14 behea  
Tfnoa: 79 70 66

" HERRASTI "  
AKEITA ETXEA



**CAFES**  
*de Brasileira*

Aralar kalea, 7  
Tfnoa: 79 32 83



taberna  
**URBALTZ**  
Mitarte, 21 behea  
Tfnoa: 79 79 79  
**ARETXABALETA**



**IZOTZ**  
**TABERNA**  
MITARTE KALEA  
Tfnoa: 79 73 65

**LANDETA**  
**MIHISIDENDA**  
Durana, 22  
Tfnoa: 79 57 29  
**ARETXABALETA**



**BRIKO**  
**-LAN**  
SANTAKURTZ KALEA, 4  
Tfnoa: 79 68 58  
**20550 ARETXABALETA**



**ADAGIO**  
MITARTE 17  
Tfnoa: 79 94 39  
**ARETXABALETA**

**ARETXABALETAKO**



**GAZTETXEA. Y A. G. A**



**MAPFRE**

ZURE  
SEGURTASUNERAKO  
ZUBIA



- KOTXEENTZAKO ASEGURUA
- BIZITZARAKO ASEGURUA
- ETXEBIZITZARAKO ASEGURUA

Errekabarren. 3  
20550 ARETXABALETA  
Tlfnoa: 77 11 76